



## **2014KO UZTAILAREN 4KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko uztailaren lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertarutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Haizea Mendia Insausti.

Inazio Estensoro Eskisabel eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertarututakoen onespenera aurkezten da 2014ko ekainaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 51 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA BAT MILA BEDERATZIEHUN ETA LAU EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO (21.904,46 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### **III.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-**

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

#### **Lazkao Txiki Musika Eskola.-**

Lazkao Txiki Musika Eskolari HAMASEI MILA EURO (16.000 €)ko dirulaguntza onartzea. Aurtengo urtarrilean zortzi mila euro (8.000 €) aurreratu zitzaiola kontuan izanda, orain beste ZORTZI MILA EURO (8.000 €) ordainduko zaizkio.

#### **Goierriko Euskal Eskola.-**

Goierriko Euskal Eskolari, 2014ko aurrekontuan Gerriko Ikerlan Sariketarako aurreikusita dagoen dirulaguntzatik, BI MILA ETA BOSTEHUN EURO (2.500 €) aurreratzea, gastuei aurre egiteko.

### **IV.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamahiru gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.